



LITERAKTUM

Hitzen hiria

3.500 lagun inguruk hartu dute parte amaitu berri den Literaktum Jaialdian

Literaktum, Donostiako literatura jaialdia, azaroaren 8tik 21era egin da hiriko hainbat espaziotan eta aurten ere, jende ugari hurbildu da antolatutako ekitaldietara. Guztira, 3.500 baino gehiago izan dira, modu batera zein bestera, jaialdian parte hartu duten hiritarrak.

Literatura eta memoria izan da jaialdiak aurten izan duen ardatz nagusia. Gai horren inguruan mintzatu dira bildutako idazle gehienak, memoriak literaturaren sorkuntza prozesuan duen garrantzia eta pisuaren inguruan dituzten iritziak argudiatuz. Literaktumen izan dira, besteak beste, Luis Landero, Leila Slimani, Borja Ortíz de Gondra, David Grossman, Marta Barone, Isabela Figueiredo, Jordi Amat edo Edurne Portela, memoriaren inguruan zer esan handia duten sortzaileetako batzuk.

Topaketak Donostiako Kultur Etxeetan, San Jerónimo aretoan, Koldo Mitxelena Kulturunean, Tabakaleran eta hiriko beste espazio batzuetan egin dira. Aretoak beteta izan dira hainbat saiotan, hala nola, Leila Slimani, Luis Landero, Javier Cercas edo Manuel Jaboisen solasaldiak entzuteko. David Grossman israeldarrarena izan da jendetsuena.

Nabarmentzekoa halaber, jaialdiari hasera eman dion Anjel Lertxundiren hitzaldia, Martin Ugalderen jaiotzaren mendeurrenean, euskal kulturaren figura garrantzitsua izan zena gogora ekarriz. Baita, Kirmen Uribek New Yorketik bere azken obraz esandakoak edo Eider Rodriguezen lehen eleberriaren gainean Harkaitz Canorekin izandako solasaldia.

Idazleekin izandako solasaldiez gain, Literaktumen izan dira baita ere literatura beste lengoaia batzuekin elkarrizketan jarri dituzten jarduerak; eztabaidak, ikastaroak, irakurketa musikatuak, irrati tailerra, antzezlanak, instalazioa eta baita bost erakusketa, zeinak oraindik ere abendua edota urtarrila bitartean ikusi ahal izango diren.

Literatura zale gazteenentzat osatutako Literaktum Txikiaren programa ere arrakastatsua izan da. Ipuin-kontalariak, antzezlanek, Haurren Egun Unibertsalaren festak, tailerrek eta animalia fantastikoaren ilustrazioa lehiaketa izan dira. Azken honetan, nabarmendu 200etik gora izan direla parte-hartzaileek egindako marrazkiak.

Donostia Kulturak antolatutako Literaktum jaialdiak elkarlanen sare indartsuko gunea izaten jarraitzen du urtez urte; besteak beste, Kutxa Kultur, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirola departamentua, Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren eta Giza Eskubideen Bulegoa, Etxepare Euskal Institutua, Martin Ugalde Kultur Parkea, UPV-EHU, Euskadiko Filmategia, eta Gipuzkoako liburu-denden Elkarteak ere sare horren parte dira bai eta Euskal Herriko zein Espainiako hainbat argitaletxe ere.

Donostia *Hitzen hiria* bilakatzen duen literaturaren jaia amaitu da baina bertan esan eta entzundakoekin gozatzeko aukera ere bada oraindik. Hainbat solasaldien [podcastak](#) entzungai daude Donostia Kultura Irratiaren webgunean <https://irratia.donostiakultura.eus/> eta podcast plataforma nagusienetan.